

# Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Bertsotan trebatzea, euskal ondarea hobeto ezagutzea, euskarazko filmak ikustea edo euskara praktikatzeko Interneten bidez. Hona hemen hurrengo asteetarako proposamen batzuk.

## Itxialdirako planak

### Bertsolaritza

Bertsozale Elkartetik hainbat baliabide proposatzen dituzte: *Bertsoeskola.eus*, haur zein heldu, bertsotan trebatzeko eta ondo pasatzeko; *Bertsoa.eus*, hamaika saio bertsolaritzaren hedabidean eta ondorengo ikus-entzuzkoak: *Mundu bat ahoz aho*, *What is bertsolaritza?*

### Antzerkia

Tartean Teatroak bere ikuskizun guztiak publiko egin ditu. Vimeo plataformaren bitartez ([www.vimeo.com](http://www.vimeo.com)), ondorengo antzezlanak ikus daitezke: *Ghero*, *Lingua Nabajorum*, *Zergatik Jamil* edo *Pankreas*.

### Liburutegi digitalak

Nafarroako Liburutegi Digitalak aukera ematen du obra digitalizatuak zuzenean jaisteko. Batez ere inprimatutako lanak dira, baina badaude eskuizkribuak ere, hala Nafarroako gaiei buruzkoak, nola Nafarroan idatzi edo ekoiztuak ([www.quedateen-casa.navarra.es/eu/hasiera](http://www.quedateen-casa.navarra.es/eu/hasiera)). Beste aukera da EBiblio liburu digitalen mailegua. Unibertsala eta doakoa da, eta sartzeko baldintza bakarra Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko erabiltzaile karneta edo txartela edukitzea da ([www.navarra.ebiblio.es](http://www.navarra.ebiblio.es)).

### Ondare digitala

*Liburuklik* euskal ondare bibliografikoaren zaintza bermatzen duen erakundearen arteko gordegia da, euskal hizkuntza eta kulturaren interesa duen orori sarbide erraza. Liburuklikek eskura jartzen dituen funtsek euskal



Ghero antzezlanaren momentu bat. Bizirik irauteko grinari buruzko istorio bat da.

TARTEAN TEATROA

prentsa historikoa, inkunablaak, aldizkari bildumak, argazkiak, eskuizkribuak edo partiturak, besteak beste, biltzen dituzte ([www.liburuklik.euskadi.eus](http://www.liburuklik.euskadi.eus)).

### Euskal kantak

Orain gutxi sortu da EiTB Euskal Kantak, EiTBren lehen irrati digitala. Bertan, euskara hutsean eginiko musika entzun ahal izango da, eta orain, gainera, zure proposamenak hartuko dituzte whatsapp bidez. Horretarako, 607 707 017 telefonora whatsapp audio bat bidali, eta zure eskaria irratian entzungo da.

### Zinema euskaraz

Hainbat film euskaraz ikusteko aukera dago EITB-ko Kultura sailak abian jarritako ekimen honi esker ([www.eitb.eus/eu/kultura/zinema-euskaraz](http://www.eitb.eus/eu/kultura/zinema-euskaraz))

### Poesia beltza

Aurtengo '(H)ilbeltza' egitarauaren barnean antolatutako *Poesiaren kriminalak* errezitaldiaren aurkezpena eta poemak daude irakurgai lotura honetan: <https://beltzaz.wixsite.com/h-ilbeltza-beltzaz/generoaz>

### Podcastak

Euskarazko podcastak biltzen dituen webgune honetan euskaraz ekoizten diren podcast independenteak aurki daitezke, hau da, irratsaioetatik ez datozten podcastak. *Podcastak.eus* proiektua Tropela Elkarteak bultzatu eta babestutako ekimena da.

### Euskara ikastaroak

AEK-k online ikastaro berriak eskainiko ditu: Boga metodolo-

gian oinarritutako ikastaroak (hiru edo sei hilabetekoak, mintza-saioak edo solteak), itzulpen-gintza ikastaroa (apirilaren 20etik ekainaren 19ra, 30 ordukoa) eta azterketak prestatzeko 30 orduko ikastaroak. Informazio gehiago: [www.aek.eus/eu/bloga](http://www.aek.eus/eu/bloga)

### Mintzanet

Egitasmoaren helburua euskaraz jarduteko aukera ez duen pertsoneri etxetik atera gabe euskara praktikatzeko modua ematea da, Euskal Herrian eta mundu osoan. Egitasmoa guztiz doakoa da eta ezinbesteko bi oinarri ditu: bidelaguna eta bidelaria. Bidelaguna euskaraz ongi dakiena da (ez du titulurik behar). Bidelaria, berriz, euskara praktikatu nahi duena da (B1 maila izan behar du gutxienez). Izena emateko: [www.mintzanet.net](http://www.mintzanet.net)

### 'ETXEAN GAUDENO'

Koarentenakin hasi ginen herenegun (bis) ta oraindik aurretik horrenbeste egun! Ez dakit martxa honetan zer egingo dugun... Zu ere ni bezala bazabiltza lagun gutxinez bertso hauek kantatu ditzagun! Hogeita lau orduak etxean sartuta (bis) zenbat dira asteko guztiak batuta? Irtengo nintzateke baloia hartuta baina hortxe ondo dago pixkat pentsatuta berak ere atsedena noizbait behar du ta!

Atetik irten gabe gaude orain denak (bis) lagunik ezin uki eta hartu nau penak... Baina bukaera du guretzat kondenak ta horrela datozkit galdera zailenak: nola bizi ote dira beti hala daudenak?

Hemen gaude txorik kaiolan bezela (bis) denbora gutxirako dugu, dena dela. Batzuk ospitalera gaixotu ta bela, ez da erraza izango hango pasarella... Gure gelan lagun bat egon zen horrela.

Gaixorik jarri zela jada aspaldi da (bis) baina gogoan dugu, begira, begira: nola ospitaletik heldu zen herrira... Orain gaixo daudenei aupa eta biba! Hura sendatu bazen, sendatuko dira!

Prestatzen garenean bidai baterako (bis) kotxeko minutuak dira betirako! Gehiago plana bada oso urrutirako! Mundua zein handia den umeontzako, ta aldiz zein txikia birus honentzako!

Mundua gaixotu da batekoz besteko (bis) etxea motibo bat al da kexatzeko? Aprobetxa dezagun lasai egoteko bertan ditugunekin tope goatzeko... Etxerik ez dutenak ez daude hobeto. Hau pasa beharra du sendatu nahi dunak (bis) ta munduan kutsatu gutxi nahi ditunak nahiz ta orduak izan geldoak, astunak, buelta emango diogu, izan zentzudunak, laster gara kalean, animo lagunak!

Etxean gauden lagun guztiei eskainitako bertso sorta. Iñaki Gurrutxagabak idatzi eta Maddalen Arzallus abestua. Karaokea: <https://youtu.be/oal3v5wcatM>

## Etxeko txikientzat

• Margolanak, dantzateka, ipuinen irakurketa, bertso jolasak, trebetasuna eta ezagutza neurtzeko jokoak, Santillana koadernoak...

### 'Ene Kantak'

Etxeko egonaldia umeekin modu entretenigarrian igarotzeko hainbat eduki proposamen daude 3 Ene Kantak webean, besteak beste, margolanak, dantzateka eta Atxa Mitxa atalak.

Margolanak atalean, Urbik margolan simple bat erraz marrazten erakusten die etxeko txikienei. Dantzateka atalean, berriz, 3 Ene kantak-eko Nerek eta Enekok emandako azalpenekin, asteko bideo kliparen pausoak ikasteko aukera daukate haurrek. Eta umeen irakurketa bultzatu nahi bada, Atxa Mitxa atalean eta 3TXULO saioko webean, haurrentzako liburu gomendioak daude.

Halaber, irudimenari lekua egin eta eskulanak egin ahal iza-

teko, HIRU3ko webean, besteak beste, eskulan ezberdinak egiten ikasteko bideoak, marrazkiak egiteko ereduak eta margotzeko marrazkiak dituzue. Eta txikienek jolasak nahi badituzte, hainbat jolas dituzte eskaintzeko, hala nola, denbora-pasak, trebetasuna eta ezagutza neurtzeko jokoak.

### Ipuinaren ordua

Donostia Kulturaren *Ipuinaren ordua* programako istorioak Youtuben ikusi eta entzuteko aukera egongo da egunero, arratsaldeko 16:00etatik aurrera, berrogeialdiak irauten duen bitartean. Saio hauek euskaraz izango dira, igandeetan izan ezik (horiek gaztelaniaz izango baitira) eta larunbateko saioa zeinu hizkuntzan eta euskaraz izango da.

### Bertso jolasak

Haurrekin bertsolaritza modu

jolasgarrian lantzeko. Adibidez, gai bati buruz nork hitz gehiago esan, gaiari lotutako oinak zein diren identifikatzeko ariketa; asmakizuna, pistak hiru bertsotan emanda... *Bat-batekoak* atalean, bertsolariek plazan kantatutako 149 saio dibertigarrienak aurkituko ditugu ([www.bertsoeskola.eus](http://www.bertsoeskola.eus)).

### Santillana koadernoak

Iritsi da *Pupitre*, Santillanen appa orain erabat doakoa, seme-ala-

